

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko martxoak 20 • 118. zka.



Jubilazio aktiboa

Elgea mendilerroko haize parkea ■ Iturriondo parkea ■ Candido Perez

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldi kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE • Tfnoa: 79 20 18

Gipuzkoako Policlínica • DONOSTIA • Tfnoa: 46 22 00



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- | | |
|------------------------------|----------|
| • JUANTXO URDAITEGIA | 79 75 42 |
| • MARI KARMEN OINETAKO DENDA | 79 59 85 |
| • IRUDI ILEAPAINDEGIA | 79 80 90 |
| • MIREIA ARRAINDEGIA | 79 31 59 |
| • ARAMAIO OKINDEGIA | 79 64 87 |
| • LEINTZ-ROSI | 79 78 63 |
| • ERREKABARREN FRUITATEGIA | 79 96 43 |



Zer egiten duzu jubilatuta ondoren?


Mariasun de los Santos
(Jubilatua)

Oraindik sei hilabete pasatu dira jubilatuta nintzenetik. Jubilatua hartzea ez zitzaidan gogorra egin eta orain artean behintzat oso entrentenituta egon naiz: etxeke lanak, eskulanak...




Pedro Jose Zuazabeitia
(Jubilatua)

Orain hiru urte hartu nuen jubilatua 65 urtekin. Ez zitzaidan batere gogorra egin eta oso pozik hartu nuen. Eguna okupatuta izaten dut: ortuko lana, pasiatu, iloba zaindu...




Jesus Etxeberria
(Jubilatua)

10 urte daramatzat jubilatuta. 65 urtekin jubilatuta nintzen eta pozik hartu nuen jubilatua. Ez dut gauza espezialik egiten, goizetan ibili eta arratsaldetan deskantzatu. Ez dut ezer faltan botatzen.



Teodulo Toledo
(Jubilatua)

Orain sei urte jubilatuta nintzen. Goizetan emazteari laguntzen diot etxean, gero buelta bat ematen dut eta arratsaldean oinez joaten naiz. Gustora hartu nuen jubilatua.



e s k u t i t z a



Oharra

Azken egunotan behar den moduan identifikatu bariko gutun batzuk jaso ditugu. Gure aldetik ez dago argitaratzeko inongo arazorik, baina iritziek balio haundiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, karta guztiek identifikatuta etorri beharko dute: izen-abizenak eta telefonoa adierazita.

Gehienez 200 hitzetako gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

Zuzenketa: Aurreko alean, telebistaren proiektua udaletxean aurkeztu zela jarri genuen. Egia esan, proiektuaren berri badute ere, ofizialki egun hauetan aurkeztuko da.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria




Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aste Santuko ospakizunak:

Parrokiatik Isurietara Gurutz-Bidea egingo da



Aste Santua gainean dago. Liturgi batzordeak ere Aste Santuko ospakizunen programa eginga dauka. Aurtengo urtean gainera berrikuntza bat ere gehitu da: orain arte Gurutz Bidea elizan bertan egiten zen, aurtengoan Andra Mari parrokiatik irten eta Isurietako San Pedro elizan bukatuko da.

Ospakizunak

Martxoaren 26an, Eguazten Santuan, Penitentzia elkarteko ospakizuna burutuko da arratsaldeko 7,30etan.

Eguen Santuan, goizeko 10etatik 12etara bakarkako penitentziaren sakramentuak hartuko du lekua.

Arratsaldean berriz, Jaunaren azken afariko Eukaristia egingo da monjetan arratsaldeko 5,30etan eta 7etan parrokian Eukaristia Nagusia. Gaueko 9etan otoitza monjetan.

Eguakotx Santuko ekitaldia Gorespenekin hasiko da monjetan goizeko 9etan. Ondoren 11etan Gurutz Bidea egingo da parrokiatik Isurietara.

Arratsaldeari Jaunaren nekaldiko ospakizunak emango dio hasiera, 4retan monjetan eta 5,30etan parrokian.

Zapatu Santuan, Gorezpenak izango dira monjetan goizeko 9etan. Gauean berriz, Pazko Gaubela eta Bataioak egingo dira, parrokian 9etan eta monjetan gaueko 10etan.

Ekitaldiekin bukatzeko Pazko Domekan, Eukaristia guztiak domeketako orduetan egingo dira.

Esan beharra dago, Eguen Santutik Pazko Domeka bitartean ezin dela hileta mezarik ospatu. Hori dela eta, hiletaren bat gertatuko balitz hileta-Meza Pazko Astelehenean ospatuko litzateke.

Gurutz-Bidea parrokiatik Isurietara

Aurtengo Aste Santuko ospakizunetan bada desberdintasun bat. Orain arte elizan bertan egin izan den Gurutz-Bidea, Andra Mari parrokiatik Isurietara egingo da. Antonio Astigarraga parrokoaren esanetan, Jesusek egin zuen bidea, oinez egitea nahi izan da. "Fedea sentimen guztietatik bizi behar da. Horregatik Jesusek Pilatosen Jauregitik Calvario mendira egin zuen ibilbidea, guk ere oinez egingo dugu".

Gurutz Bidean 14 geldidune egiten dira, bakoitzean ebanjelioaren zati bat irakurritz. Antoniok beste herri batzutan izan duen arrakasta ikusita gurean ere hala izatea nahi izango luke. "Herritarrek Fedea beste modu batean bizitzeko aukera izango dute". Esandako moduan, Eguakotx Santuan goizeko 11etan egingo da Andra Mari elizatik irten eta Isurietako San Pedro eliza arte.

Auzoetako ospakizunak

Auzoei dagokienez, Aste Santuko ospakizunak Azatza eta Mendiola auzoetan egingo dira.

Eguen Santuz, Mendiolan Meza Santua arratsaldeko 5,30etan ospatuko da. Azatzen, 6,30etan. Eguakotx Santuz berriz, goizean Barkamenaren ospakizunak hartuko du lekua, Mendiolan goizeko 11etan izango da eta Azatzen 12etan. Bukatzeko Pazko Domekan ospakizunak betiko moduan egingo dira.

Okindegia - Gozotelegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

MENDIOLA

Astelehenean itxita

ESKORIATZA

Giro politean pasatu zen korrika

“Euskal Herria Korrika” lemapean, eta eguraldi ederrak lagunduta, Korrika garaiz heldu zen gure herrira. Herritarrak herriko bazterretan itxoiten zeuden euskararen alde takarraran egiteko asmoz. Guztira bederatzi talde izan ziren herrian zehar testigua eraman

zutenak: UDA, Murruxiko, Loramendi, Aretxagazeta, Almen, Emakumeen taldea, Gestorak, HB eta Euskaltegia.

Batzuk gainera Korrikarekin batera Landaraino ere joan ziren. Hauek bai umorea!



Korrika txikia 3,30etan abiatu zen Pausokatik Loramendiraino



Herriko taldetxo batek Landaraino joateko umorea izan zuen



Herrian bederatzi taldek eraman zuten testigua

KORRIKAREN azken jaia Bilbon

Martxoaren 23an KORRIKAK bukaera izango du Bilbon eta azken jaia ospatuko da bertan. Autobuserako txartelak Loramendi Elkartearen daude salgai. Hauek eskuratzeko martxoaren 21a baino lehenago pasatu behar da Loramendi elkartetik edo eta 77 09 70 telefonora deitu.

Txartelak

Bilboko azken jai honetako ekintzetan parte hartzeko txartela beharrezkoa izango da. Txartel hori Loramendi elkartearen eskuratu daiteke 300 pezetaren truke. Sarreraren artean Kubara bidaiari zozketatuko da.

Grafologia ikastaroa

Loramendi Elkarteak grafologia ikastaroa antolatzen du, idazkera eta marrazketaren azterketan oinarrituz, norberaren izakera ezagutzeko aukera ematen duena.
Apirilak 7, 14, 21 eta 28an emango da Loramendiko lokalean arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara.
Prezioa: 4.000 pezetak
Apuntatzeko: 7709 70 telefonora deitu.

Loramendi Elkarteak grafologia ikastaroa antolatu du. Idazkera eta marrazketaren azterketan oinarrituz, norberaren izakera ezagutzeko aukera ematen du.

Zeinu grafikoetan (idazketan eta marrazketan) norberaren izakera proiektatzen da, hau da, NIaren aztarnak uzten dira: sentimenduak, gurariak, kezkak, portaerak... Grafologiak ezagupen horretan sakondu eta lan egiteko aukera ematen du.

Ikastaroaren emalea, Irune Ibarra

izango da. Euskadi Irratiko “Bide batez” saioan eta “Egin” egunkariko “Jakin-minez” atalean idazkera eta marrazketan oinarritutako azterketak egiten ditu.

Apirilaren 7, 14, 21 eta 28an emango da Loramendiko lokalean arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara. Prezioa 4.000 pezetakoa da eta apuntatzeko Loramendiko lokalean egin daiteke edo eta 77 09 70 telefonora deituta. Ikasle kopurua mugatua izango da. Apuntatzeko azken eguna martxoaren 26a izango da.

Murrukixo M. E.aren mendi ekintzetarako beka eskaintza

Txostenean aurkeztutako premien arabera, bidaiarako edo materialerako diru laguntza emango da



Gaur egun gazteek duten mendirako grina asetu eta diru kontuak mendian inorentzat muga izan ez daitezenez, Murrukixo M. E.ak beka eskeintza egingo du aurten Aretxabaletako mendizaleentzat.

Beka eskatzaileak bete beharko dituen baldintzak ondorengoak dira: ikasle edo langabetua izatea, Aretxabaletakoa izatea eta gutxienez 16 urte izatea. Mendian egindako ekintzak, edo eta egin nahi direnak, txosten garbi baten Murrukixoko lokalean aurkeztu beharko dira maiatzaren 13a baino lehenago, asteartetan arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara. Txostena

banaka, binaka edo taldeka aurkeztu ahal izango da.

Murrukixo M. E.ak berriz, aurkeztutako txostena aztertuko du. Txostenean ikusitako premien arabera, bidaietarako edo materialerako diru laguntza emango da. Aholkularitza eta dokumentaziorako laguntza ere eskainiko da.

Ekainaren 24rako erantzuna jakitera emango du Murrukixo M.E.ak.

Informazio gehiagorako Murrukixoko lokalera jo daiteke asteartetan arratsaldeko 7,30etatik 8etara, edo eta 79 93 74 telefono zenbakira deitu.

Aretxagazetako ez-ohiko batzarra

Bihar, martxoak 21, Aretxagazetako ez-ohiko batzarra egingo da. Deialdi honen arrazoia, Aretxagazeta eta Loramendi elkarte lantzen ari diren herri telebistaren proiektua da. Hori dela eta, telebistaren proiektua aurrera eramateko, elkartearen sorrerako estatutuetan aldaketa txiki batzuk egin behar dira, aurrerantzean komunikabide zabalago bati erantzun ahal izateko, honela aldizkaria eta telebista bere barnean bilduko dituen elkarte eratzeko. Batzarra udaletxeko pleno aretoan egingo da. Lehenengo deialdia arratsaldeko 7,30etan eta bigarrena 8etan izango da. Bazkide guztioi gonbidapena luzatzen zaizue ez-ohiko batzar honetara.

Antzerki astea Kurtzebarri eskolan

Aste honetan zehar, martxoaren 18, 19 eta 20an Kurtzebarri eskolan 5. antzerki topaketak ospatu dituzte. Egunean zehar mailaka, eskolako beste ikasleei eskaini zaizkie saioak eta arratsaldero 6etatik aurrera gurasoei zuzendutako saioa izan dute. Bertsolariak, antzeztutako abestiak, antzerkiak, zirkoa, asmakizunak eta bestelako ekintzak izan dira antzerki aste honetako egitaraua osatu dutenak.



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



EGUZKIGRAF
inprimategia



Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792944
ARETXABALETA



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

Elgea mendilerroko haize-parkea

□ Proiektuaren arabera Aretxabaletako lurretan hiru haize-errota joango dira

Elgea mendilerroan egin nahi den haize-parkearen aurre proiektua eginda dago eta udaletxean aurkeztuta dago. Azken hau, IGOKA, kalifikazio eta zuzenketa-neurriei buruzko txostena bideratzen ari da.

Azken informazioaren arabera, Euskal Herriko lurralde antolaketaren batzordeak Euskal Autonomi elkarteko haize-parkeen infrastrukturen plan bat burutzea eskatu du, baita leku hauen azterketa espezializatu bat egitea ere.

Honek proiektua atzeratu egin dezake.



Haize-errota batetik bestera gutxigorabehera 160 metroko tartea egongo da

Iazko urtearen erdialdera Eólicas de Euskadi enpresak haize-parkearen proiektua aukeztu zuen udaletxean. Parkearen helburuetariko bat kontsumitzen den energiaren zati bat bertan sortzea da. Udalak parkea egiteko zabaltzen ziren bideak erabilera murriztukoak izatea eta, behin hau bukatu ostean, lehengo egoera berreskuratzea eskatu zuen, obrek ahalik eta kalte gutxien sortzeko. Honez gain, Mendi Federazioak eta lurren jabeek ere aurkeztu zituzten euren alegazioak.

Momentu honetan, Udala IGOKA, kalifikazio eta zuzenketa-neurriei buruzko txostena, bideratzen ari da. Bestalde, Euskal Herriko lurralde antolaketaren batzordeak Euskal Autonomi elkarteko haize-parkeen infrastrukturen plan bat egitea eskatu du eta honek proiektua atzeratu egin dezake.

37 haize-errota

Proiektuaren arabera, Arabako Elgea herriak Gipuzkoako Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñati herriekin muga egiten duen mendilerroan kokatuko dira haize-errotak, 37 guztira. Horietatik hiru Aretxabaletako lurretan joango dira. Gainontzekoak, Eskoriatza eta Oñatiko zatian, hauetako gehienak Elgea Arabar herriarekin muga egiten dutela.

Abantailak, desabantailak

Haize parkeen funtzionamendua garbia da eta ez du ingurua kutxatzen. Honez gain sortzen duen energia agortezina da.

Desabantailen artean, berriz, sortzen duen zarata eta inguruan duen inpaktoa daude, honez gain hegaztientzat arriskutsua izan daiteke.

Funtzionamendua

Haize-errota batetik bestera, gutxigorabehera 160 metroko tartea dago. Errota bakoitzak 600 kw.ko potentzia du eta haizearen eraginez ardatz baten inguruan biraka ibiliko diren hiru beso. Beso bakoitzak 20 m.ko erradioa du eta errotak duen altuera 40 m.takoa da guztira.

Energia elektrikoa sortzeko behar den ekipamendu tekniko guztia dorrearen gainean dago, 40 metroko altueran. Sortzen den argindarra dorre batetik bestera lurpetik eramaten da, azkenean, transformadore batera iritsi arte. Transformadore honetatik aterako dira, gaur egun argindarra eramaten duen hari nagusira lotuko diren argi-hariak.

Obrak bideratzeko irekiko den bidea Elgea aldetik egingo da.

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Martini



INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKLI

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Loramendi literatur lehiaketan saritutako lanak

Kasu honetan DBHko 1.go zikloko poesia bat dugu begien aurrean. Nagore Agirre 13 urteko neska dugu poesia honen egilea eta 2. saria eskuratu zuen. Hona hemen Nagoreri egindako elkarrizketa eta aurkeztutako poesia:



Nagore Agirre

Txingurriak

Hemen eta han alde guztietan gure txingurriak lanean.

Hara eta hona beti noraezean janaria aurkitu nahian lekuren batean, nahiz amonaren pastel gainean edo ta aitonaren aldamenean, beti dabilta gu zirikatu nahiean. Egun osoan zehar lotan edo lanean batzutan bide ertzetan bestetan harripean baina beti izango dute janaria hurbilean.

Nagore; Loramendi literatur lehiaketara aurkezten zaren lehenengo aldia da?

Ez, urtero aurkeztu izan naiz. Beste behin hirugarren sari bat ere irabazi nuen beste poesia batekin.

Beti poesia aurkeztu izan duzu?

Ez. Ipuinak ere aurkeztu izan ditut, baina poesia egiteko errazagoa da, gutxiago idatzi behar da. Ipuin bat idaztea zaila da niretzat.

Espero zenuen irabaztea?

Egia esan ez nuen esperatza haundirik baina berria eman zidatenean poz handia hartu nuen.

Baduzu idazteko ohiturarik?

Ez, normalean ez dut asko idazten.

Eta nola bururatu zitzazizun txingurrien inguruko poesia idaztea?

Libururen batean irakurri nuen txingurrien inguruko zerbait eta hortik bururatu zitzaidan.

Zer izan zen zailena?

Hasiera ematea eta gaia pentsatzea ere bai.

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETAKO

BERALAN

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**Artano
Taberna**

Herriko Plaza
ARETXABALETAKO

**IZOTZ
Taberna**

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta

Iturriondo zuhaitzez josia

30 zuhaitz landatu dira aurtengo neguan

Bada Aretxabaletako inguruetan 350 zuhaitz eta zuhaixkatik gora dituen lur saila. Bertan 30 zuhaitz mota desberdinetatik gora landaturik daude. Iturriondo deitzen da eta Bainuetxe gainekaldean kokatzen da, Mendiolara joateko bidetik eskumaldera.

Ez da berezko parke naturala, orain urte batzuk herriko talde bat lantzen etorri den proiektua baino. 1991. urtean udaletxeko ingurugiro saileko batzordetik sortutako talde batek proiektua aurkeztu zion udaletxeari. Azken honek ideia onartu eta ingurua garbitu eta txukundu ondoren 350 zuhaitz eta zuhaixka landatu zituen. Horien artean: pagoa, urkia, ametsa, gorostia, artea, haritza, gerizondoa, zurzurria, elorri beltza, ezpela.... Horietako batzuk gaur egun galtzear daudenak: agina, mendiko ezpela, otsalizarra, zumarra, gurbitza...

Aurtengo neguan ere hosto galkorreko beste 30 zuhaitz landatu dira: astigar zuria, olibo txuria, intxaurre beltza, ametsa, almeza...

Mendiolara bidean, Bainuetxe gainekaldean dago Iturriondo parkea. Gaur egun 30 zuhaitz mota desberdinetatik gora daude bertan. 1991. urtean udaletxeko ingurugiro batzordetik sortutako talde txiki batena da proiektua. Aurrera begira, gure basoetako zuhaitz mota asko galtzear daudela ikusita, naturarekiko harreman estuagoa eta gure inguruarekiko errespetua sortzea du helburu.



Naturarekiko errespetua sortu

Hemendik urte batzuetara parke natural bihurtu nahi da Iturriondoko parkea, batez ere, hosto galkorreko zuhaitzekin.

Baina ez hori bakarrik, proiektuak hori baino urrunago heldu nahi du: gizartearengana eta gaur egungo gazteengana hain zuzen ere. Gure basoetako

zuhaitz asko galtzear daudela ikusita, naturarekiko harreman estuagoa eta gure inguruarekiko errespetua sortzea du helburu.

Hori horrela izateko, Iturriondon dauden zuhaitzek identifikatzeko izena izango dute aldamenean, ingurugiro heziketa bat bultzatzeko asmoaz. Erronka polita hau herrian natura maite dutenentzat.

Borondatezko lana

Herritar batzuen borondatezko lanari esker, sasiz josita eta baztertuta zegoen lur sail bat zuhaitzez betetzea eta txukuntzea lortu da. Baina lana ez da hemen bukatzen, basoko lana ezagutzen dutenek ondo dakiten moduan, lur sail hori txukun mantendu gura bada, jarraipen bat izan behar du. Gainera, zuhaitzak gazteak badira oraindik eta gehiago. Hori dela eta, Iturriondo parke bihurtzeaz amets egiten dutenek gertutik jarraitzen dute honen bizitza. Zelaia garbi mantentzeko esaterako, ardiak behin eta berriz bazkatu dute Iturriondoko zuhaitzen oinetan jaiotzen den belarra eta ez hori bakarrik, baita lurra ongarritu ere aldi berean. Prozesu natural bat jasaten ari da hortaz.

Gure herrian, naturaren alde egiten dutenek badute non erakutsia. Gainera, gure herrian horrelako txoko asko daudela kontutan hartuz, badago non lan egin. Zuk ere irakurle, natura maite baduzu hemen duzu aukera gure inguruaren alde laguntza emateko.

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



Berrikuntzak

MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24

**IBARRA
ESTANKOA**




Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Jubilazioa:

Pertsona gehienek pozik hartzen dute jubilazioa



21 jubilatu dabilta kiroletzeko gimnasia klaseetan

Gaur egungo gizartea gero eta egoera hobean helden da jubilaziora. Batzuk 65 urtekin jubilatzen dira baina gero eta gehiago dira 60 urtekin jubilazioa hartzen dutenak ere. Aurre-jubilazio honi esker, gizon-emakume multzo haundi batekin topo egiten dugu: jubilazio dinamiko eta aktiboa da.

Estadistiken arabera, osasuna, bakardadea eta soldata dira jubilatutako gehien kezkatzen dituzten gauzak. Eguneroko aktibitate lanik ez egitera pasatzea gogorra gertatzen da batzuentzat, baina orokorrean gehienek pozik hartzen dute jubilazioa. Izan ere, horrenbeste urtetan lanean ibili ondoren, merezitakoa dela esan daiteke.

dieziaiekete lan horiei. Hori da elkarrizketatu ditugun jubilatutako gehienek esan digutena behintzat.

Paco Unanuek esaterako ez du aspertzeko denborarik, alderantziz, denbora faltan ibiltzen ei da. 63 urtekin jubilatutako zen, Coprecin urte mordo bat lanean eman ondoren.

Bere esanetan jubilazioa gustora eta pozik hartu zuen: "Horrenbeste urte lanean eman ondoren gustora hartzen da jubilazioa. Goizetan andreari lanak egiten laguntzen diot, gero Basotxora etortzen naiz. Arratsaldetan berriz, pasiatu, ibili... beti egoten da eginbeharrekoren bat".

Eguna zelan bete?

Lanean murgilduta ibili ostean, batzuei kostatu egiten zaie jubilatutakoan zer egin pentsatzea, horrenbeste denbora libre izanda. Zer egin? Ez da guztien kasua. Gehienek lehenagotik ere beren afizioak eta eginbeharrak zituzten eta orain denbora gehiago eskaini

“Jubilatutakoan aktibo egotea da onena”

Pasiatu, kartaka jolastu...

Orokorrean jubilatutako gehienek ibiltzea eta pasiatzea dute gogoko. Hori da Jesus Etxeberriaren kasua ere. "Goizean ibili eta arratsaldetan deskantsatu egiten dut". Orain 10 urte hartu zuen jubilazioa, "laster ohitu nintzen egoera berrira, ez zitzaidan batere gogorra egin".

Beste askok ostera jubilatuen etxera joan eta bertan pasatzen du

arratsaldea. Momentu honetan 740 bazkide ditu Basotxok. "Arratsaldean jende asko hurbiltzen da jubilatuen etxera, gehienek kartaka jolasteko ohitura dute. Eduardo Altubek, Basotxoko zuzendariak dioenez.

Jubilatuena eguna, bidaiak, mar-txa erregulatuak... dira jubila-tuentzako antolatzen diren ekintzak. Jubilatuentzako bidaiak arrakasta handia ei dute. "Hasiera baten jende gutxi ematen zuen izena baina orain ez da guztientzako le-kurik egoten, denek joan nahi izaten dute". Bestelako ekintzak ere antolatu izan dira, ikastaroak, hitzaldiak... baina ez dute arrakastarik izaten. "Jendea ohituta dago etorri eta kartaka jolastera eta ohiturak aldatzea zaila da".

Jubilaziorako gertatu

Aurrean esan dugun moduan, gaur egungo gizartea gero eta osa-sun egoera hobean heldzen da jubi-laziora, eta bizi itxaropen luzeagoaz gainera.

Egoera hau ikusita zenbait koo-peratibek jubilaziorako formazio prozezu berri bat hasi zuten, laneko azken urteetan aurkitzen dirennei

“Kooperatibek jubilaziorako formazio ihardunaldiak jarri dituzte martxan”

zuzendutakoa. European aspalditxo egiteko ohitura bada ere, Euskal Herrian gauza berria da. Hala ere, arrakasta handia izaten ari da.

“Jubilaziorako ihardunaldiak” izenburupean eta ICTEren (Hiru-garren Adinekoen Instituto Komunitarioa) laguntzaz, enpresa desber-dinetan sesio informatiboak burutu dira. Bertan jorratu diren gaiak: pentsioak, lan aktibotik jubilazioa-rako saltoa, osasunaren preben-tzioa... izan dira.

Jubilatuak positibotzat jotzen dute jubilaziorako prestakuntza hau izatea. Azken finean, norbere kez-kak adierazi, aholkuak jaso eta bes-te batzuen esperientziak entzuteko aukera eskaintzen du. Etapa berrian sartzeko laguntza bat da azken finean.



Datorren martxoaren 26an jubilatuko da Resu Aretxaga. 25 urte egin ditu Coprecin lanean. Momentu honetan goian aipatutako “Jubilaziorako ihardunaldietan” parte hartzen ari da.

• Zer moduz “Jubilaziorako ihardunaldietan”?

Oso ondo, orain arteko hitzaldietan oso gustora egon naiz eta interesgarriak iruditu zaizkit gainera.

• Zer gauza eman dizuete?

Egunero gauza desberdinak, zahartzarora, zaharren egoitzak, pentsioak, beste jubilatutako batzuen esperientziak...

• Pozik jubilazioa hartzeko?

Bai gogo handia dut jubilatzeke. Lanean egindako lagunengatik ematen dit pena.

• Zer egongo duzu jubilatutakoan?

Lehenengo mentalizatu egin behar naiz. Aktibitate askoko pertsona naiz eta geldi ez naiz egongo behintzat. Parrokiako Pastoral sanitarioko partaidea naiz, eta zaharren egoitzara ere joaten naiz eguenetan.

• Nola ospatuko duzu?

Lanekoekin bazkaria egingo dut eta familiakoak bazkari batera gonbidatuko ditut.

Eduardo Altube Basotxo, jubilatuen etxeko zuzendaria da. Aurtengoa hirugarren urtea du. Momentu honetan 740 bazkide ditu Basotxok.



• Zer lan egin behar izaten ditu Basotxoko zuzendariak?

Batzordean 10 lagun gaude, zuzendaria, idazkaria, diruzaina eta beste zazpi. Beti egoten da eginbeharrekoren bat. Bidaiak antolatu, Diputaziora joan, momentu honetan esaterako karnetak berritzen ari gara.

• Zer gauza antolatzen dira Basotxotik?

Bidaiak, mar-txa erregulatuak, konkurtso gastronomikoak, meriendak... Eskulan eta bestelako hitzaldiak ere antolatu izan ditugu, baina inor ez da etortzen.

• Zerk izaten du arrakasta?

Bidaiak. Gero eta jende gehiagok joan nahi du eta ez da denendako lekua egoten. Denen gustoa ezin egin.

• Zer egiten du jendeak Basotxon?

Arratsaldetan jende asko etortzen da, kartaka jolasteko ohitura handia dago.



Iazko urteko zikloturista taldeko finalistak: Goian: Dionisio Mera, Benito Garcia, Baltasar Garcia, Manuel Mateos, Juan Aldabe, Manolo López. Beheko iladan: Inocencio Curto, Manuel Baena, Jorge Oiarbide (Iñaki Iturberen ordeaz jaso zuen trofeoa), Luis Migel Santa Teresa, Migel Santa Teresa.

Zikloturistek hasi dute denboraldia

Udaberriarekin batera, zikloturistak ere pedalei emateko gertatu dira. Martxoko lehenengo domekan eman zioten aurtengo denboraldiari hasiera. Horretarako Dorletako Ama Birginari, txirringularien zaindaria, lore eskaintza egin zioten.

Domekero-domekero txirringulari heldu eta ibilaldi desberdin

bat izango dute egitarauan. Hasiera baten ibilaldi motzenetatik hasi eta km.ak igotzen joango dira, udako oporren ostean berriz, lasai-lasai jarraitzeko asmoz.

Guzti honez gain, klasiketan ere hartuko dute parte, Donostiakoan, Quebrantahuesos, Pirineotakoan... Denetarako astia izango dute zikloturistek.

Gorriñaren bidetik II

Aurten ere Murruxio M. E.ak "Gorriñaren bidetik" Aitzgorrirako joan-etorria antolatzeko asmoa du. Iaz antolatu zen lehenengo aldiz eta aurtengoa, beraz bigarrena izango da. Ekintza honek Aretxabaletako udaletxe zaharrean aldaba jo eta Aitzgorrirako joan-etorria korrika egitean datza, bakoitzak egokiena ikusten duen bidea erabiliz.

"Gorriñaren bidetik" Loramendi E. E.ak maiatzaren 17rako antolatuko duen Euskeraren egunaren barruan egingo da. Ekintza honetan parte hartzeko asmoa izan ezker Murruxio M. E.an izena eman beharko da martizenetan arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara.

Pala txapelketa hasi da

Joan den astebukaeran hasi zen pala txapelketa jokatzeko. Guztira 10 parejak eman dute izena. Martxoan hasi eta ekainerarte zapatu eta domeketan jokatu dira partiduak kiroletxean. Ekain aldera beraz, pala txapelketako irabazleak zeintzuk diren ezagutuko ditugu.

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias


- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56



Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

Izozkiteki-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01



MAPFRE

Aseguroak

Errekañarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

Candido Perez

“Bizikletan ibiltzea jatea moduan da niretzat”

Candido Perez Aretxabaletako zikloturista taldeko partaidea dugu. Umetatik gogoko izan du bizikletan ibiltzea baina orain 15 bat urte zikloturismoa praktikatzen hasi zen.


Gaur egun egunero egiten du bueltatxo bat bizikletan. 45 urte izan arren 20 urte zituenean baino hobeto aurkitzen dela esan digu. Aurtengo urterako duen helburuaz ere berba egin du: urrian Andesetara joan nahi du, munduko mendaterik altuena igotzeko, 4.845 metro dituen Adra Anticona hain zuzen ere.

• Candido, kontagizuzi zure azken helburu honen berri.

Bai, urrian Andeetara joateko asmoa daukat, munduko mendaterik altuena igotzeko: Adra Anticona 4.845 m.takoa. Oporrak urrian hartu eta 15 egunetarako emazteaz Perura joango naiz. Mendateka bakarrik igoko dut, hasi Liman eta Adra Anticonaraino, 146 km inguru, 2000 metrotik gorako desnibelaz.

• Zure kontura egingo duzun bidaia da hortaz?

Bakarrik egingo dudan arren Azkar, nik lan egiten dudan garraio enpresak patrozinatuko dit. Aurten ez banaiz joaten ez naizela sekula joango esan diot neure buruari.



“Urrian, gauza guztiak ondo joaten badira behintzat, Andesetara joango naiz, munduko mendaterik haundiena igotzera”

• Aurten ala inoiz ez, planteatu diozu zeure buruari. Zure burua ondo gertatu beharko duzu hortan joan aurretik?

Bai, egunero-egunero irtetzen dut bizikletan. Goizero 2,30 egiten ditut bizikleta gainean, normalean 60 bat km. Astebukaeretan berriz, gehiago. Poliki-poliki km.ak gehitzen joango naiz. Honetaz gain, elikadura ere asko zaintzen dut.

• Ia profesionalak

moduan...

Bai, askotan profesionalak baino hobeto zaintzen gara, elikadura oso garrantzitsua da. Nik astero hiru alditan pasta, arrosa... jaten dut. Horretaz gain, juerga gutxi.

• Eta eguneroko entrenamenduaz gain, nola bizi duzu zikloturismoa? Zikloturismoak bizitzeko energia ematen dit eguneko eginbeharretarako, lanerako, bizitzeko...

Bizikletan egunero ibiltzen ez banaiz gaixorik

nago, eta haserre egoten naiz. Bizikletan ibiltzea jatea moduan da niretzat.

• Bizikletan ibiltzea hortaz, ia ezinbestekoa bihurtu da zuretzat. Zure emazteak zer esaten du?

Ohituta dago. Emazteak klasika askotara laguntzen dit.

• Zein klasiketan parte hartu duzu?

Klasika askotan parte hartu dugu, Quebrantahuesos, Donostiakoan, Madrilekoan, Asturiasekoan, Cobadongakoan... Aretxabaletatik taldetxo bat joan izan gara klasi-ketara.

• Urte hauetan kilometro asko egingo zenituen hortaz?

Bai, iaz 13.000 km. egin nituen eta aurtengo urtean 3.500 bat egin ditut dagoeneko.

Euskal Herri osoan zehar ibili naiz, mendate gehienak igoak ditut. Orduña gustatzen zait gehien, batez ere, dituen bailara ederrengatik.

• Baina beti entrenatu izan duzu horren gogor?

Betidanik gustatu izan zait txirriindua. Orain 15 bat urte hasi nintzen zikloturisten taldean eta azkenengo sei urtetatik hona gogor entrenatzen aritu naiz.

• Zer da zikloturismotik gehien gustatzen zaizuna?

Mendateak igotzea batez ere.

B E G O Ñ A A R E N A Z A



“Familian dagoen giroagatik sortzen diren arazo sozialak gero eta gehiago dira”

Udaletxeko gizarte laguntzailea dugu Begoña Arenaza. Aurten 12 urte egingo ditu lan honetan. Hasi- era baten bost urte egin zituen Urats Gain Egoitzan eta geroztik udaletxean dago. Bere lana gustoko duela adierazi digu.

• 12 urte daramatzazu gizarte laguntzaile lanetan. Zein da azken urte hauetan zure lanean nabari duzun aldaketa?

Familia barruko egoeran oinarria duten arazoak asko gehitu dira, hau da, etxeko giro ez egoki batek dakartzan ondorioetatik sortutako arazoak.

• Gizarte laguntzailea ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke?

Erizaina.

• Lanetik irtendakoan zer egiten duzu?

Umeekin pasiatu.

• Baserria ala kalea gurago?

Baserria. Kalean bizi naiz, baina beti baserrian nago.

• Seme-alabek badute zure antzik?

Bai, mutikoak batez ere.

• Zein da zure misioa?

Eguneroko lana ahal den eta ondoen egitea, familian, lanean, lagunekin...

• Gustoko kolorea?

Beltza.

• Zer erregalu egin zenion gizonari azkenengo aldiz?

Alkondara bat.

• Aste Santua ospatzen duzu? Zeozer berezia egiteko asmorik baduzu?

Ez, ez dut ezer berezirik egiten. Hemen egongo naiz.

• Zer ez zenuke inoiz jantziko?

Body bat.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Ridikuloa egiteak.

• Zer botatzen duzu faltan Aretxabaletan?

Parke polit bat.

• Egunkaria irakurtzen duzu?

Bai, dena irakurtzen dut orokorrean.

• Jubilatutakoan zer egitea gustatuko litzaizuke?

Lasai bizitzea.

• Aktore gustokoena?

Richard Gere.

• Eta hain gustoko ez duzuna?

Imanol Arias.

• Janari gustokoa?

Entsalada.

• Gutxien gustatzen zaizuna?

Gibela, esnea, oilaskoa, untxia...

• Eibar-Gasteiz autopistaren inguruan zer duzu esateko?

Nik uste dut bide egokiak eta seguruak beharrezkoak direla. Hori lehen dauden bideak konponduta lor badaiteke horren aldekoa naiz.

• Edade ideala?


Momentuan daukazuna.

• Abesti gustoko bat?

Xabier Leteren edozein.



Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskerak elkartea



arizumaren ostean Aste Santua dator. Garai batean, egutegi erlijiosoa bizitzaren ardatza zen. Argazkian ikusi besterik ez dago, prozesioek zuten indarra eta biltzen zen jende kopurua.

Eguen eta Eguakotx Santu egunean egiten ziren prozesioak, liturgia ostean. Kasu honetan Eguakotx Santukoa dugu argazkia, Jesusen heriotzaren adierazgarri. Herri guztiak hartzen zuen parte, auzoko abadeak eta auzotar guztiak jeisten ziren kalera. Arantzazutik fraile bat ere etortzen zen sermoia ematera.

Eliza eta monjetatik atera, aurrean Gurutze Saindua zeramatela, eta jendea atzetik. Jesusen heriotzaren irudia erdian eta Doloretako Ama Birgina atzean. Hauen eramaleei anderuak deitzen zaie. Ama Birginaren atzetik jakina, herriko korua joaten zen. Ibilbidea honakoa: Durana kaletik zehar, Beroa lantegiraino eta hemendik gora estazinora. Gero Pagaldaixeneko kantoitik behera, kaletik bueltan berriz elizaraino.

Soineko eta traje berriak estrenatzen ziren egun honetan, lutoz jazten ziren asko, Jesusen heriotzaren eguna ospatzen zelako.

Prosezio ostean Dokera jolasten zen, ez zegoen beste dibertsiorik. Dena debekatua zegoen.

Argazkia 1954. urte inguruan Durana kalean ateratakoa da. Bertan ikus ditzakegu: **Pedro Leibar, Alejandro Bengoa, Txomin Otxoa, Hermenegildo Galdos, Alberto Beltran de Heredia, Victor Agirre, Telesforo Atxaga, Jose Ignacio Zubia...**

Argazkia: **Marisol Altuna**

Informazioa: **Anton Martinez de Agirre, Konsuelo Etxabe, Victor Agirre**

JOSU

HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Korrika



Aretxabaletan, lagun asko ibiltzen da korrikan. Ez naiz Urkulura joaten diren korrikalariez berba egiten ari, Euskal Herriko KORRIKARI buruz baino. Aurten 10. edizioa bete da, eta astelehenean bostak aldera pasatu zen gure herritik. Atxabaltar askok hartu zuten parte bertan eta testigoa eraman zutenak: **UDAtik Joseba Larrinaga, Murruxotik Iñigo Zubia, Loramenditik Juan Antonio Priego, Aretxagazetatik Arantxa Eguren, Almenetik Agurtzane Azkargorta, Emakumeen taldetik Leire Gorostiza, Gestora eta HBtik Leire Urra eta Euskaltegitik Junkal Zubizarreta eta Mari Cruz Herranz** eskoriaztarrak izan ziren.

Baina batzuk Eskoriatzara joatea gutxitxo zela eta, Landaraino joan ziren: **Felis Beltran de Heredia, Juan Antonio Priego, Joseba Larrinaga, Aitor Irure, Jesus Lonbide, Ramon Eraña, Igor Dublan, Sergio Romero, Unai Beitia, Fernando Uribesalgo, Iñaki Etxeberria, Jon**

Ander Loidi eta Ramon Domaika.

Denak izerdi patxetan heldu ziren. **Alberto Etxebarria** argazkilari lanetan Korrikako furgonetan jarrita joan zen. Takarraran egin ez arren hau ere izerditan heldu zen Landara, beste guztien adar jotzeak entzun behar izan zituen eta.

Arabako antolatzaileek, horrenbeste atxabaltarrek Araban zer egiten zuten galdetu zieten. Joseba Larrinagaren erantzuna: "patata bila gatoz!" izan zen. Buelatu zirenean taldeko batzuk afari ederra egin zuten. Patatakin ala patata barik, horixe da ez dakidana.

Janari kontuekin jarraituz esan behar da, Aretxabaletako elkarte gehienek lehendakari aldatu egin dituztela. Honako hauek dira lehendakari berriak: Ibai-gainen: **Jabier Intxausti**; Murualden: **Migel Igartua**; Uratz-aldean: **Iñaki Arana**; Eguzki-aldean: **Goio Besa**; Urbaltzen, urte bukaeran aldatu zuten beraz **Jokin Bengoak** jarraitzen du. On egin diezazuela guztioi.

Aldaketak izan dituen beste talde bat Abesbatza da. Batzordekide berriak: **Eli Barandiaran, Zorione Santamaria, Eli Izagirre eta Jose Antonio Jauregi** dira.

Udaletxean ere aldaketa bat izan dute. **Jorge Nuñez** aparejadorea Gasteizeko udaletxera joan da. Aretxabaletako udaletxea tranpolin ona da.

Bueno akabo gaurkoz. Ez ahaztu bihar, egua-kotxa, Aretxagazetako ez ohiko batzarra dagoela, Aretxagazetako estatutuetan Herriko Komunikabideek ekarriko dituzten aldaketen inguruan berba egingo da, ni behintzat banao.

A R E T X A G A Z O K A

LANA

- Andereino diplomatua klase partikularrak emateko gertu. (BO2 arte). Tfnoa: 79 75 23.
- Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86.
- Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsalde edo gauz. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

ETXEBIZITZA

- Hornitutako etxebizitza salgai dago Aretxabaletan, kalefazioa, ganbara... Gipuzkoako plazan 1.º zenbakian, 4 esk. Tfnoa: 79 93 77.
- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.
- Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

DENETARIK

- Opel Ascona markako kotxea salgai. Ate bikoia, egoera onean eta prezio ekonomikoan. Tfnoa: 79 43 05.

- Lur hiztegi entziklopedikoa salgai dago, estrenatu barik. Tfnoa: 79 78 26. (goizez 10etatik ordu letata, arratsalde 4etatik 9etara).

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



FANATICO

EEBB 1996

ZUZENDARIA: Tony Scott
AKTOREAK: Robert de Niro (Gil Renard), Wesley Snipes (Robby Rayburn), Ellen Barkin (Jewell Stern), John Leguizamo (Manny).



Robby Rayburn (Wesley Snipes) milioi askotako kontratu bat sinatu berri duen beisboleko izar ospetsu bat dugu. Beraz ez dio beldurrik etorkizunari. Gil Renarden (Robert de Niro) egoera, oster, askoz latzagoa eta gordinagoa da. Aizto-saltzaile honek emakumea, lana eta semearen estimazioa galdu ditu oso denbora gutxian. Pelikulak, bata eta bestearen historia azalduko digu. Hau dugu pelikularen zati onena, batez ere, saltzailearen erretratuari dagokiona: bere bizimoduaren kontrola galtzen ari dela eta eskizofrenian erokiko den gizon baten degradazioa. De Nirok, inork baino hobeto egiten dakien papera beraz. "Fanático" k fanatikoari idoloa mirestea bere bizimodu tristeari zentzuna emateko nahikoa dela adieraziko digu. Baina hasieran miresmen hutsa zena, obsesioa bilakatuko da Renarden buru eskizofrenikoan. Baina bien arteko harremana suertatzen denean "Fanático" k kale egiten digu. Dena dela, azken herena kenduta, "Fanático" oso pelikula interesgarria da.

Z A R A I A Z I N E M A

Otsailak 21, 22, 23, 24

FANATICO

Otsailak 23, domeka (Umeentzat)

ALASKA

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

Oharra:

Aste Santuan zehar ez da zine emanaldirik egongo.

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2

Tfnoa: 79 79 24

Aretxabaleta

KIROLDENDA



Intxaurtxueta, 5
 ESKORIATZA

☎ 71 52 96

Esko Sport

Larunbat arratsaldetan zabalik

Liburutegiko txokoa



Ixtorio hautatuak

Roald Dahl

Luis Berrizbeitia itzultzaile

Elkar, 1996

Roald Dahl oso idazle ezaguna da haur eta gazte liteturaren munduan. Gales-en jaiotako idazle honek berandu hartu zuen idazteko ohitura, bigarren mundu gerran egazkin pilotu bezala aritu eta gero aurkitu zuen idazteko zaletasuna eta ordutik aurrera lan pilo bat utzi dizkigu, bai gazte eta helduentzat ere. Orain arte haur literaturan bere lan asko euskaratu dira, baina lehengo aldia da helduentzat euskaraz kaleratu dena. Liburu honetan bere tituloak argi adierazten duenez ipuin batzuk hautatu dira, Dahlen fantasiako istorio hauek oso sinesgarriak dira bere kontatzeko era naturalagatik eta bukaera harrigarria eskeintzen dute beti. Erdarazko bertsioan ere aurkitu dezakezue Udal Liburutegian.

Joseba Lopez de Armentia

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Bedarreta

taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

BP Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

MARTXOA

21

egukotxa

**ARETXAGAZETAKO EZ-
OHIKO BATZARRA**

**Aretxabaletako komunikabideak:
Aretxagazetako estatutoen aldaketa.**
Udaletxeko pleno aretoan, lehenengo
deialdia arratsaldeko 7,30etan,
bigarrena arratsaldeko 8etan.

ZINEA

Zaraia zineman gaueko 10,15etan
"Fanático".

22

zapatua

ZINEA

Zaraia zineman gaueko 10,15etan
"Fanático".

23

domeka

MENDI IRTEERA

Murruxio M. E.a eta Ortzadarren
eskutik **GORBEA** mendira irteera eta
ondoren **BABAJANA**. Irteera goizeko
8etan partenoitik. Izen ematea
Arlutzen.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-Arroiabe-
Durana-Gasteiz-Elorriaga-Otazu-
Gasteiz-Urbina-Landa-Aretxabaleta.
72 km.

KORRIKAREN azken jai

Martxoaren 23an Bilbon KORRIKARI
amaiera emateko egingo den jaialdira
joateko autobuserako txartelak
Loramendi elkartearen eskuratu daitezke.

ZINEA

Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan
eta gaueko 10,15etan "Fanático".

24

astelehena

ZINEA

Zaraia zineman gaueko 10,15etan
"Fanático".

30

domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-
Legutiano-Otxandiano-Urkiola-
Legutiano-Landa-Aretxabaleta. 72
km.



**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Aste Santuko ospakizunak

Eguazten Santutik Pazko Domekara bitartean Parrokiako liturgi batzordearen eskutik Aste Santuko ospakizunak egingo dira. Horren inguruko informazioa "hamabostean behin" atalean dago.

Ekintza berezi moduan, Eguakotx Santu egunean goizeko 11etan Andra Mari elizatik Isurietako San Pedro elizara **Gurutz bidea** egingo da.

Auzoei dagokienez, Eguen Santu eta Eguakotx Santu egunean Azatza eta Mendiolan egingo dira ospakizunak. Pazko Domekan ospakizunak betiko moduan egingo dira.

Grafologia ikastaroa

Loramendi Elkarteak grafologia ikastaroa antolatu du, idazkera eta marrazketaren azterketan oinarrituz, norberaren izakera ezagutzeko aukera ematen duena. Apirilaren 7, 14, 21 eta 28an emango da Loramendiko lokalean arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara. Informazioa: 77 09 70

MENDI TALDEEN IRTEERAK

Huizira irteera

Zaraia M. T.ak Nafarroako Huizi herrira irteera antolatu du. Egingo dituzten irteerak:

- 1- Arraratz-Laontze (1190)-Ireber (1202)-Ernaitzu (1203).
- 2- Zuparrobi (1169)- Konteta (1073)
- 3- Altzadi (1019)

Martxoaren 27tik 31ra bitartean izango da irteera. Albergian lo egingo da.

Prezioa 7.000 pezetakoa da lo lekua eta pentsio osoa barne. Irteera honetan parte hartu nahi ezkerok Zaraia mendi taldeko lokalean izena eman behar da. (Nafarroa kalean, arratsaldetan).

Linzara irteera

Martxoaren 27tik 31ra bitartean

Murrukixo M. E.ak Pirineotako Zurizara

irteera antolatu du. Igoko diren mendiak:

Hiru erregeen mahaia, Atxerito eta Ani.

Apuntatzeko izena Murrukixon eman

behar da asteartean 7,30etatik 8etara.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Mendi taldeen eskutik irteerak antolatuko dira Aste Santuan.

Argazkia:
Dulantz
(Nafarroa)
Zaraia M.T.



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABAleta

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAleta

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



MECCA

Dena dauka!

Ez da beste ezertaz

hitz egingo!

GRUA ZERBITZUA:

GRUA Tfnoa.: 989 34 98 29

Renault Asistentzia 900 365 000

MECA 79 59 99



MECCA

RENT A CAR
alkilerreko kotxeak

Twingo

Clio

Megane

Laguna

Espace

☎ 79 50 12 - 79 52 12